



**ANTXOKO IBAIONDO FRONTOIKO
KANTINA USTIATZEKO ETA
FRONTOIAREN KUDEATZEKO
KONTRATAZIOA**

**CONTRATACIÓN DE LA EXPLOTACIÓN
DE LA CANTINA DEL FRONTÓN
IBAIONDO DE ANTXO Y GESTIÓN
DEPORTIVA DEL FRONTÓN.**

2016ko martxoaren 31n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira kontratu honen helburuaren xehetasunak. Eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 15ean bukatuko da.

Con fecha de 31 de marzo de 2016 se ha publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la descripción detallada y concreción del objeto de este contrato. El plazo para la presentación de ofertas finalizará el próximo 15 de abril

Kontratu honen xedea hau da: Antxoko Ibaiondo frontoian berriki eraiki eta hornitutako kantinaren ustiapena, eta frontoiaren kirol kudeaketa. Esleipena prozedura irekiz eta enkantez egingo da, eta hainbat esleipen-irizpide erabiliko da.

El objeto del contrato es la explotación de la cantina recientemente construida y equipada en el nuevo frontón Ibaiondo de Antxo así como la gestión deportiva del frontón. La adjudicación se llevará a cabo por procedimiento abierto, y diversos criterios de adjudicación.

Kantinan otordu xumeak, ogitartekoak, pintxoak eta edariak eskainiko dira, eta erantsitako zerbitzu hau: frontoiaren erabilerari lotutako kirol kudeaketa.

La prestación del servicio consiste en una cantina o taberna-merendero que ofrezca comidas sencillas, bocadillos, pinchos, bebidas, etc. así como servicio añadido, la gestión deportiva vinculada al uso del frontón.

Kontratatik galdu-gordean jardun beharko du, eta esleipendun gertatzen dena izango da bere ardurapean arituko diren pertsonen zerbitzua eskaintzeko egiten dituzten egintza materialen erantzule.

Se realizará a riesgo y ventura del contratista, siendo la persona física o jurídica que resulte adjudicataria la responsable de las personas que bajo su dependencia realicen los actos materiales para llevar a cabo la prestación.

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa da, eta bi aldeek adostuta luzatzeko aukera izango da, urtebeteko luzapenen bidez.

La duración del contrato será de 2 años, pudiendo ser prorrogado por mutuo acuerdo mediante prórrogas de un año;

Ez da ezarri esleipendunak ordaindu beharreko gutxieneko kanonik. Hori horrela izanik ere, balorazio-irizpide gisa ezarri da lizitatuzaileek kanona hobetzea; beraz, esleipendunak udalari ordaindu beharreko kanona izango da hark eskaintzan eskainitakoa.

No se establece un canon mínimo a abonar por el adjudicatario. Sin perjuicio de lo anterior, se establece como criterio de valoración la mejora de dicho canon por los licitadores, de manera que el canon a abonar al Ayuntamiento de Pasaia será el ofrecido en su caso por el adjudicatario en su oferta.

Kontratu honen xedearen deskribapen zehatza baldintza teknikoen agirian jasotzen da. Agiria udalaren web orrian dago argitaratua: iragarkien atalean eta kontratatzailearen profilean.

La definición detallada y concreción del objeto del presente contrato se contienen en el pliego de prescripciones técnicas particulares que están publicadas en la web municipal www.pasaia.net en el apartado de tablón de anuncios y perfil del contratante.

Instalazioaren ezaugarriak baldintza tekniko berezien agiriko I. eranskinean zehazten dira. Halaber, baldintza tekniko berezien agiriaren II. eranskinean jasotzen da kantuan dauden tresna, ondasun eta ekipamenduen inbentarioa. Azkenik, III. eranskinean jasota dago egun frontoian dagoen ekipamendua.

Las características de las instalaciones se concretan en el plano incluido en el Anexo I del pliego de prescripciones técnicas particulares. Asimismo, consta en el Anexo II del pliego de prescripciones técnicas particulares el inventario de los útiles, bienes y equipamiento con los que está equipada la citada cantina. Finalmente, en el Anexo III consta el equipamiento actualmente existente en el frontón.

Pasaia, 2016ko apirilaren 1ean.



PASAIKO UDALA

www.pasaia.eus IFK/CIF P2006900A

Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia

Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447

NOTA DE PRENSA